

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AÑANAKO UDALA****Behin betiko onartzea hilerriaren erabilera arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa**

Añanako Udaltzaren, 2016ko ekainaren 29ko bilkuran, hasierako onarpena eman zion hilerriaren erabilera arautzen duen zerga ordenantzari. Iragarkia 2016ko uztailaren 8ko ALHAOn -77. zk.- argitaratu zen, eta jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da.

Beraz, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, argitara ematen da tarifen eranskina, indarrean sar dadin.

TARIFEN ERANSKINA

| 1. EPIGRAFEA. HILOBIAK ETA HORMA HILOBIAK ESLEITZEA | ZENBATEKOA |
|--|-------------------|
| a) Betiko hilobiak | 300 |
| b) Aldi baterako hilobiak Gorpu bakoitzeko: | 0 |
| c) Betiko horma hilobiak | 10,00 |
| d) Aldi baterako horma hilobiak: Hamar urterako | 0 |
| Bost urterako | 0 |

| 2. EPIGRAFEA. LURSAILAK ESLEITZEA MAUSOLEO ETA PANTEOIETARAKO. | ZENBATEKOA |
|---|-------------------|
| Mausoleoak, lursail metro koadroa | 0 |
| Panteoiak, gorpuko | 10,00 |

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Gesaltza Añana, 2016ko urriaren 5a

Alkate-lehendakaria

JUAN CARLOS MEDINA MARTINEZ